BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5448

EBAZPENA, 2013ko azaroaren 14koa, Hezkuntzako sailburuordearena, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko laguntzak ebazten dituena (EIMA 2.0).

Euskarazko ikasmaterial digitaletarako laguntza-bideetara dei egin zuen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak 2013ko irailaren 2ko Aginduaz (2013ko irailaren 16ko EHAA). Hori dela eta, Ebazpen-batzordearen proposamenez honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2013ko irailaren 2ko Aginduan adierazitako prozedurari jarraituz, guztira banatzeko dauden 200.000 euroko diru-partidatik Agindu honen I. eranskinean agertzen diren diru-laguntzak esleitzea.

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean aipatzen diren ikasmaterialei diru-laguntzarik ez ematea. Diru-laguntzarik ez ematearen arrazoia honakoa da: Proiektuaren Egitura edo/eta Edukiaren Egokitasuna deritzon atalean gutxieneko maila lortu ez izana, laguntza-deialdiaren II. eranskineko 1.1 eta 1.2 puntuetan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.– Ebazpen honen III. eranskinean aipatzen diren ikasmaterialei diru-laguntzarik ez ematea. Diru-laguntzarik ez ematearen arrazoia, kasu honetan, honako hau da: diru-partida agortu duen proiektuak baino puntuazio txikiagoa du proiektu horrek eta, beraz, laguntzarik gabe geratu da.

Laugarrena.– Ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hamabost egun naturaleko epea izango du produktore bakoitzak bere produkzioa egingo duen ala ez ziurtatu eta lan-egutegia idatziz aurkezteko. Ziurtapen hau egiten ez badu, diru-laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen hau banan-banan jakinaraziko zaio laguntza-eskatzaile bakoitzari eta ondoren EHAAn argitaratuko da.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa egin dezakete interesatuek, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren aurrean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Ebazpen honetako euskal eta erdal idazkien artean interpretazio-auzirik sortuko balitz, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik hura hartuko da korapiloa askatzeko gidari.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 14a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.

I. ERANSKINA

LAGUNTZA JASOKO DUTEN PROIEKTUAK

CREATIVE COMMONS			
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren izenburua	Diru-laguntza
2013/023	Naturgaia	Izaki bizidunen nutrizioa	16.690
2013/024	Naturgaia	Zergatik hondoratzen dira gorputzak?	13.910
2013/005	Asmoz Fundazioa	Iritzia idatziz… ematen ikasi	25.200
2013/015	Eletan Kultur Elkartea	Poesia idatzi poesia irakurriz	4.200
		Orotara	60.000

JABETZA PRIBATUA			
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren izenburua	Diru-laguntza
2013/031	Elkar-Ikastolak Zerbitzuak	Eki DBH 2. Naturaren zientziak. Liburu digitala.	8.136
2013/015	Euskal Herriko Ikastolak	Gizarte zientziak e-liburua. DBH 1.	30.000
2013/018	Euskal Herriko Ikastolak	Euskara e-liburua. DBH 1.	30.000
2013/030	Elkar-Ikastolak Zerbitzuak	Eki DBH 2. Gizarte zientziak. Liburu digitala.	9.936
2013/017	Euskal Herriko Ikastolak	Naturaren zientziak e-liburua. DBH 1.	30.000
2013/023	Elkar-Ikastolak Zerbitzuak	Txanela LMH 1. Musika. Liburu digitala	18.690
2013/024	Elkar-Ikastolak Zerbitzuak	Txanela LMH 2. Musika. Liburu digitala	13.238
		Orotara	140.000

II. ERANSKINA

LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN PROIEKTUAK

Proiektuaren egitura edo/eta edukiaren egokitasuna deritzon atalean gutxieneko maila lortu ez duelako
(Deialdiaren II. eranskineko 1.1 eta 1.2 puntuetan adierazitakoaren arabera)

CREATIVE COMMONS				
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren izenburua	Proiektuaren egitura	Edukiaren egokitasuna
2013/001	Lea Artibai Ikastetxea	Kutsatzaile kimikoak	x	x
2013/002	Lea Artibai Ikastetxea	Ikastetxeetako arriskuak	x	x
2013/003	Euskomedia Fundazioa	Lurraren mugimenduak eta ilargiaren aldiak		x
2013/006	Badihardugu Deba Ibarreko Euskera Elkartia	Euskal dimentsioa lantzeko ikasmaterial osagarria, ahozko ondarean oinarritua		x
2013/007	Asociación Bilbao Digital	Ekonomia eta enpresa antolaketa	x	
2013/008	Asociación Bilbao Digital	Giza baliabideak eta erantzukizun sozial korporatiboa	x	
2013/009	Editorial Saure	Bizitzaren zientziak	x	x
2013/010	Editorial Saure	Giza eskubideen historia eta gaur egun duten garrantzia gizartean	x	
2013/011	Suhar Arkeologia	Historiaurreko metodo eta teknikak	x	x
2013/012	Julen Salsamendia Abando Y Otro	Erdi aroan zehar	x	
2013/013	Zaramari	Arkitente 2.0	x	
2013/014	Practice Your Music	Material didaktikoa: practice your music	x	
2013/019	Fundación Deusto	Mateclick: geometrikoa	x	x
2013/020	Fundación Deusto	Mateclick. Estatistikoa	x	x
201/021	Fundación Deusto	Mateclick: algebraikoa	x	x
2012/022	Gestionet Multimedia	Kimikaz blai	x	x

JABETZA PRIBATUA				
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren izenburua	Proiektuaren egitura	Edukiaren egokitasuna
2013/001	Elixir Films	Hiritik. Hiri eta arkitektura eraldaketa euskal herrian azken bi mendeetan. Ibilbideak	x	
2013/002	Elixir Films	Oteiza. Eskulturaren ulermenerako sarbidea.	x	
2013/003	Elixir Films	Euskaldunak munduan. Euskal diaspora lantzeko materiala.	x	
2013/006	Ikasplay	Urrintz eta euskal herriko historia XIX. Mendean	x	x
2013/007	Ikasplay	Ikasi urrintzekin	x	x
2013/010	Azul Multimedia	Umeentzako ekonomia		x
2013/011	Asociación Cultural Eresti	Batxilergoko biologia eta geologia ikasgaiarentzako test-moduko galderak	x	x
2013/012	Gaiak Argitaldaria	Oinarrizko aleman hiztegia (euskara-alemana)	x	x
2013/013	Gaiak Argitaldaria	Oinarrizko txinera hiztegia (euskara- txinera)	x	x
2013/014	Gaiak Argitaldaria	Mutilak eta neskak berdintasunaren bidean	x	
2013/016	Euskal Herriko Ikastolak	Matematika DBH 1. E-liburua.	x	x
2013/019	Gestionet Multimedia	Ikusi eta esan	x	x
2013/021	Gestionet Multimedia	Zuzen idatzi	x	x
2013/022	Aic, Gestión De Capital Intelectual	Lan txokoa. Euskadiko lanbideak eta jarduerak ikasi.	x	
2013/029	Elkar-Ikastolak Zerbitzuak	Eki. DBH 2. Euskara eta literatura. Liburu digitala.	x	
2013/032	Elkar-Ikastolak Zerbitzuak	Eki DBH 2. Matematika. Liburu digitala.	x	x

III. ERANSKINA

LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN PROIEKTUAK

Diru-partida agortu duen proiektuak baino puntuazio txikiagoa duelako, diru-laguntzaren 17. artikuluan adierazitakoaren arabera.

CREATIVE COMMONS		
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren izenburua
2013/016	Fundación Deusto	Teknologia interaktiboa III: etxebizitzetako instalazioak
2013/004	Euskomedia Fundazioa	Mapak irakurtzen ikasi
2013/017	Fundación Deusto	Teknologia interaktiboa III: robotika
2013/018	Fundacion Deusto	Newton ikasgai

JABETZA PRIBATUA		
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren izenburua
2013/025	Elkar-Ikastolak Zerbitzuak	Txanela LMH 3. Musika. Liburu digitala
2013/026	Elkar-Ikastolak Zerbitzuak	Txanela LMH 4. Musika. Liburu digitala
2013/027	Elkar-Ikastolak Zerbitzuak	Txanela LMH 5. Musika. Liburu digitala
2013/028	Elkar-Ikastolak Zerbitzuak	Txanela LMH 6. Musika. Liburu digitala
2013/008	La Pecera	Zenbakien zirkua
2013/009	La Pecera	Natura 2
2013/004	Virtualware	HB. Hitz bilduma
2013/020	Gestionet Multimedia	Atenasetik Euskadira
2013/005	Virtualware	Lagunak 1